

# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## *Black, lesbian, mother, warrior*



Igor Estankona



**Audre Lorde**

Munduko Poesia Kaiara  
Susa, 2016

Eta poeta. Nor da soilik gauza bat, kolorea eta sexua, klasea eta adina, auzoa eta zigorrez jotako arbasoak: “Eta hemen eserita hausnarrean nabil/ nire buruetako zeinek biziraungo duen/ askapen hauen guztien ondorenean”.

Danele Sarriugarteren gustua, momentu honetan opatzea halako ahots bat... Munduko Poesia Kaiaretan irekitako leiho honetatik sartu da haize bat indartsua: “eta ez nator euria bezala/ gorazarre edo ikur gisa, lurra- ren mesedegarri./ Emakume nator/ ilun eta ireki/ batzuetan gaua bezala abailtzen naiz/ leun eta izugarri/ baina soilik hil behar du- danean/ gero atzera altxatzeko”.

Audre Lorderen (New York, 1934-Saint Croix, AEBak, 1992) poesia identitateari buruzko hausnarketa sakona da. Zentzu horretan, bakoitzaren baitako izpiritu guztien aberastasunari kantatzen dio. Aktibista da, leuna da, gogorra ere bai: afroamerikarren historiak hala erakutsita, mesfidatia du letra, eta bitala eta inkontzienteki askea, oster, musika. Harlemera eroango zaitu, esklabo ontzira igoko zaitu, eliza ezagutuko duzu, sukaldea, iraultza. Audre Lordek idazten du bere sabeleko minaz, baina emakume beltzen mina da egundo lehenengoz kon- tatua. Eta Maya Angelou edo beste batzuen antzera, badauka blues bat sakonekoa eta imitatzen zaila, aho zapore gazi gozo bat uz- ten diona halabeharrez irakurleari amaieran. Ez da tristura. Ez da alaitasuna. Bizitza da: “aspaldiko gogortasunaren arrastoek dir-dir dagite izarrek nola/ hiltzen erakusten didate eta temati esaten/ heriotza ez dela gaitz bat”.

Audre Lorde irakurtzeko modu asko daude, noski. Politikoa da bat. Bera da ahapaldi- rik ahapaldi poesiaren izate kolektiboa erre- bindikatzen duena. Irakurketak izan behar du finean beltza eta feminista. Bera beltza eta feminista da, eta barrura begira idazten duena ere kanporako da, eta hala egiten du bat gainontzekoekin, arbasoekin, mundua- rekin. Identitatea plurala dela oharturik, Lor- derentzat kondizio desberdinik ez dago, bere izatearen ertzetan egiten du bat zapaldu guztiekin, are zapaltzaileekin ere: “azeri eta oreina/ askan/ ez guztiz elkarrekin/ baina bai bata bestearen manerak/ ikasten”.

Lorde irakurtzeko modu asko daude, nos- ki, eta lirikoa ere bada bat. Sufirimenduaren apologia egin gabe, bide berrietan arakatzu, hizkuntza bera eguneratuz eta diskurtsoei buelta emanez lortu du sartzea antologietan.

Lorde irakurtzeko modu asko daude, nos- ki. Hauxe bat. ■

*Audre Lorde idazle eta aktibista  
New Yorkeko Harlem auzoan jaio zen.*

